


inoren ero ni gronhölmi



2007eko udaran garate studioan kaki arkarazok jaso, bigarren lanarekin dator inoreneroni taldea. Inork behin ezarritako lege ezkuturikoa hautsiz, bost kantuz osaturiko maxi-a da eskuetan duzuen, bidehuts medio.

Hala ere, ez da hausten duen lege bakarra; urtetako bidea egina izanagatik, beti da amildegia, beti ertzaren ertza taldearen begian.

Gero eta gutxiago dira zirena, gero eta gehiago dira direna.

Lehen melodia erritmoaren atzetik bazen, orain arratoia da katuaren atzetik dabilena; borja-ren gitarrek nabarmen daramatza beste eremu batera nola drake-mikelen kolpea, hala enekoren kantaera ere.

Gero eta gutxiago zirenak, gero eta gehiago direnak.


Drakek diskaren barruan utziriko baxua mariano hurtado-k (el hombre burbuja) atera du zuzenekora, taldeko partaide berri bilakatuz.

Beti zirena, beti direnak.

Hitzetan. gorke setien, xabier montoia eta borjaren testu mutuak, kantu ozen egin ditu enekok; beti lez, gizakiaren muga gizartearen mugaren gizakiaren muga. Gure bizitzako palindromoan.

Inoreneroni. Arratoia katuaren atzetik.

anari alberdi



Grabado en garate studio el verano de 2007 por kaki arkarazo y rompiendo una de esas invisibles leyes naturales, son cinco las canciones que guarda éste maxi que tienes en tus manos, vía bidehuts.

Aunque es largo el camino musical recorrido, siempre llevan dibujado en el ojo el vértigo de lo desconocido.

Cada vez son menos lo que eran, cada vez más lo que son.

Si antes era la melodía la que seguía la parte rítmica, ahora es el ratón quien sigue al gato. La guitarra de borja lleva tanto el batir de mikel y drake como el canto de eneko, por caminos más sinuosos.

Cada vez menos los que eran, cada vez más los que son.

Mariano hurtado (el hombre burbuja) ha rescatado para directo el bajo que drake ha dejado encerrado en el disco; pasando a ser nuevo miembro de la banda.

Siempre lo que fueron, lo que serán.

Las palabras. Mudos textos de gorke setien, xabier montoia y borja, son grito de canción en eneko. Textos en el límite de lo humano en el límite de la sociedad del límite de lo humano. Palíndromo de nuestras vidas.

Inoreneroni. El ratón tras el gato que sigue al ratón.

inoren ero ni

drake - baxua / mikel txopeitia - bateria + sanplerrak / borja - guitarra / okene abrego - ahotsa / kaki arkarazo - grabaketa, ekoizpena, masterizazioa, + gitarrak "makinen hotsa".

garate studios / andoain, 2007ko ekainaren 11 / 12 / 13 / 14 / 15 / 18

eta 19an grabatu eta ekoiztua. azaroaren 8an masterizatua.

hitzak : noizpait / gorke setien / silikona: xabier montoia

elkarrizketa, argazki eta enparauentzako / para entrevistas, fotos, etc....

asier zulueta / bidehuts@gmail.com / 606 429 177



hazi izan

Inork ez daki nor zaren
Mamu bat duzu barnean
Inork ez daki nor zaren,
noraezean

Zure buruari eragindako zauri
Haien izenean,
izan hazi hazi izan, hezean

Inork ez daki nor zaren, noraezean

Lagun, bera edo zu
Mamu bat duzu barnean
Inork ez daki nor zaren,
noraezean

noizpait

Noizpait,
2 mila ta hirurehugarrenean edo,
Eskribituko dute
Beltza zela
Lurraren odola
Beltza
Lepatutako ametsen sustraia,
Esistentziaren letra hutsala eta,
Hainbat garaxiren pentagrama
Balaz josia; hori guztia noizpait,
Ikatza edo petrolioa
Kontu zaharrak izandakoan.

Berriro ere
Huts egingo dute
Kolorea aukeratzean.
Berriz ere
Gaizki azalduko dizkigute
Gauzak
Eta orduan, berriz ere, ipuin zurian biziko gara.

gorka setien

makinen hotsa

Errepide amaigabea, oro zipizten duen
errepide sare orgasmikoa

Makinek non nahi, asfaltatzen gaituzte
orgasmoa izaten duten bitartean

Makinen ahotsak, makinen hotsa, makinen hotza

Eraikitzeke mundua eraikinean
Landan, lan eta lan
Lana, lanak, hacer LANA

Brankiak ur azpian, brankiak nork izango
ur azpian eraikitzeke

Derribos Arias-en brankiak ur azpian,
brankiak nork izango, ur azpian eraikitzeke

silikona

Itsutu egiten gaitu edertasunak
haren distirak begi biak zauritu
akatsik gabeko edonoren bistak
urduritu egiten gaitu ia eritu
ezpain eta bular bete mamitsuak
ikusi eta nola ez bada txunditu
gizon galantak, emakume pertxentak
ezin ezerk gure tristura eztitu

Entzun ezazue gure berri ona
Dena gezurra da, dena silikona

Metaletan preziatuena, urrea
Hitzetan ordea etika nagusi
Zuziri bat da argimutil bikaina
Hori gabe ezin deus ere ikusi
Denek darabilte hitzetik hortzera
Horrek badu ere hainbat kontu itsusi
Oheratu eta guztiek
etika omen dute negu gorrian burusi

Entzun ezazue gure berri ona
Dena gezurra da, dena silikona

xabier montoia

tarantella

sentado de espaldas al norte
el sol espejea en un mar tranquilo
la cara partida por los míos
y sangre en la navaja,
sangre sangre sangre
podrás gritar que he muerto
pero muerto en tus palabras vivo
vivo en la letra
de un canto di malavita
que habla de venganza y honor
vivo en un lamento
por una vida sin vivir
en la voz de una señora de luto
que canta en noches sin luna
"hijo mío, cuando crezcas
debes hacer algo por mí"
vivo en el respeto
hacia ese deseo
hoy por fin satisfecho
en la memoria
de un pasado
donde un hombre
fue hombre
a pesar de ser insultado
vivo en la absoluta certeza
de haber hecho lo correcto
en la vergüenza
de aquéllos que hoy
(me) han tenido miedo
y en la sangre
que ha zanjado
un asunto muy viejo